


PRENTSA-DOSIERRA

EIBAR OSPITALEAREN IREKITZEA

2018ko URRIA





IREKITZE EGUNA: **2018ko URRI**Aren 22a

DEBABARRENAKO ESI EIBAR OSPITALEA



8 ESPEZIALITATE


14
KONTSULTA

72
OHE


75.000
BIZTANLE
ESKUALDEAN

Eibar Ospitale berria Debabarreneko osasun arreta hobetzera dator. Izan ere, irekitzen denean, herritarrei dagoeneko ematen zaizkien zerbitzuak baino gehiago emango dizkie eta eskualdeko 75.000 biztanleei irisgarritasuna eta eskaintza sanitarioa hobetuko dizkie. Debabarrena ESIaren egituran beste zentro bat bezala txertatzen den ospitale berri honek, 21.000 metro koadrorekin, instalakuntza modernoak ditu honako zerbitzu hauek eskaintzeko: Lehen Mailako Arreta (familia-medikuntza eta pediatria), Osasun Mentala, erresonantzia magnetikoko talde bat (Osatek) izango duen Erradiodiagnostikoko zerbitzua eta Errehabilitazioko zerbitzua. Era berean, kanpo-kontsultetan 8 espezialitate eskainiko dira 14 kontsultetan. Azkenik, 20-24 oheko hiru ospitalizazio-unitate izango ditu bi solairutan banatuta. Erreferentziako ospitalea Mendarokoak izaten jarraituko duen arren, Eibar Ospitalea hurbilago dagoen osasun azpiegitura berria izango da, osasun-zerbitzu berriekin. Azken finean, herritar guztientzako arreta hobea.

HORNIKUNTZA




ZERBITZUAK SOLAIRUKA



0. SOLAIRUA

LEHEN MAILAKO ARRETAKEO UNITATEA




Orain arte Torrekuako osasun-zentroan eskaini den jarduera guztia gauzatuko da Eibar Ospitalean, lehen mailako arreta hobetuz. 0. solairuak egongo dira medikuen eta erizainen kontsultak:

- 7 kontsulta familia-medikuentzat
- 7 kontsulta erizainentzat
- Pediatria kontsulta bat
- Haur-erizaintzako kontsulta bat

0. SOLAIRUA

OSPITALEZ KANPOKO

OSASUN MENTALEKO ZENTROA




Zentro berriak honako hauek izango ditu: 12 kontsulta, administrazio-gunea, itxaron-gela bereiztuak (helduentzakoak eta haur eta gazteentzakoak), botikina, bilera-gela eta taldeentzako bi gela; horiek guztiak, 850 metro koadrotan banatuak. Guztira 12 profesional egongo dira taldean:

- 4 psikiatra
- 3 psikologo kliniko
- 2 erizain espezialista
- 2 administrari laguntzaile
- 1 gizarte-langile

0. SOLAIRUA

ETENGABEKO ARRETA GUNEA (EAG)




EAGetan larrialdietako arreta ematen da osasun zentroko ordutegiaz kanpo edo jaiegunetan.

Eibar Ospitaleko EAGak ordutegi hau izango du:

17:00etatik 08:00etara lanegunetan
eta 24 orduz larunbat, igande eta
jaiegunetan.

1. SOLAIRUA

ZORTZI ESPEZIALITATEREN KANPO-KONTSULTAK



Zortzi espezialitate hauetako arreta emango da hamalau kontsultetan:

- Kardiologia
- Arnas aparatua
- Barne-medikuntza
- Neurologia
- Erreumatologia
- Errehabilitazioa
- Traumatologia
- Endokrinologia

1. SOLAIRUA


ERREHABILITAZIO- ZERBITZUA

Ospitaleak Errehabilitazio Zerbitzu bat izango du, eta anbulatorioko pazienteei eta ospitaleratutakoei emango die arreta.

Bi gimnasio, bi kontsulta eta giharrek indartzeko gela bat izango ditu.


ESlaren gaur egungo eskaintzari honako hauek gehituko zaizkio:

- Bihotz errahabilitazioa
- Infiltrazio ekogidatuak egiteko ekografoa
- Ahots- eta irenste-arazoen balorazioa eta errehabilitazioa
- Hizkuntz arazoen balorazioa eta errehabilitazioa
- Terapia okupazionala
- Lokomozio-aparatuko patologiarekin talde-tratamenduak



1. SOLAIRUA (unitate 1) - 2. SOLAIRUA (2 unitate)

OSPITALIZAZIOA




Ospitaleak 20-24 oheko hiru ospitalizazio-unitate izango ditu bi solairutan banatuta. Bertan Barne-medikuntza Zerbitzuak beste espezialitateekin koordinatuta emango du arreta.

Eskaintza susperraldiari, errehabilitazioari eta zainketa aringarriei begirakoa izango da.

1., 0., -1., eta -2. SOLAIRUAK


ZERBITZU OROKORRAK (KLINIKOAK)



- Erradiodiagnostikoa (-1. solairua)
- Laborategia (0. eta 1. solairua)
- Lan-osasuna (0. solairua)
- Prebentzio-medikuntza (0. solairua)
- Farmazia (-2. solairua)


- 1. SOLAIRUA

ZERBITZU OROKORRAK (KUDEAKETA)



- Kalitatea
- Kudeaketa Sanitarioko Unitatea
- Informatika
- Pertsonen kudeaketa
- Kudeaketa ekonomikoa

PLANTILLA ETA KOSTUAK




Eibar Ospitalearen funtzionamenduak urtean 7-8 milioi euroko kostua izango du.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak 27 milioi euroko inbertsioa egin du ospitalea martxan jartzeko.

97 PLAZA BERRI SORTUKO DIRA
eta 200 profesionaletik gora
egongo dira ospitale berrian lanean

IREKITZEA



IREKITZE MAILAKATUA

2018/10/29an hasita

LEHEN FASEA	BIGARREN FASEA	HIRUGARREN FASEA
Torrekua LMAU	Farmazia	
EAG	Ospitalizazioa 20-24 ohe 1.S-A	Ospitalizazioa 20-24 ohe 2.-A
Kontsulta espezializatuak	Ospitaleko Errehabilitazioa	
Gimnasioa + KK Errehabilitazioa		
Erradiodiagnostikoa-Osatek		
Osasun Mentala-Torrekua		
Osasun Publikoa		

*Bi unitate iraunkorrak izango dira eta hirugarrena osasun larrialdietan irekiko da: epidemiak, istripu kolektiboak edo edozein osasun premia berezi gertatzen bada.

IREKITZEAREN INPAKTUA

Eibar Ospitalea ireki ostean, Ermuako eta Eibarko EAGen ordutegi berriak honako hauek izango dira:

17:00etatik 24:00etara lanegunetan

08:00etatik 24:00etara larunbat, igande eta jaiegunetan

MILA ESKER!!!

